

# ARRASTOAK

**Dejabu panpin laborategia**



**Harremanetarako:**  
EHAZE-Antzerkizale elkarte  
info@ehaze.eus  
<http://www.ehaze.eus/>

**Izenburua:** ..... Arrastoak.  
**Egilea:** ..... Dejabu panpin laborategia.  
**Hitzaurrea:** ..... Antton Luku.  
**Argitaratzailea:** ..... EHAZE-Antzerkizale elkarte.  
**Ezaugarriak:** ..... Teatro-testua eta dramaturgia-oharrak.  
139 orrialde. 14×22cm..  
**Hizkuntza:** ..... Euskara.  
**Argitalpen data:** ..... 2016ko abendua.  
**Lizentzia:** ..... Creative commons.  
**ISBN:** ..... 978-84-617-5957-6

## Arrastoak antzezlan



«Lurrek ez du sekula bere amari buruzko galderarik egin. Arrastorik utzi gabe egin zuen alde etxetik bera txikia zenean. Orduetik bakarrik egin behar izan dio aurre bizitzari, etxean harrapatuta bizi den aita zainduz, erantzunak bilatzeko astirik gabe.

Gutxien espero zuenean ama hilik topatu dute, eta galderak azaleratu zaizkio borborka. Galderaz galdera denboran atzera egingo du Lurrek, memoriaren zulo ezkutuenetan galduta uste zituen sentimendu eta munstroei aurre egiteko. Intrigaz eta ezustez betetako bidaia bat hasiko du orduan. Galdera bat egitea delako lehen arrastoa.»

## Arrastoak liburua

Ezinezkoa da *Arrastoak* bezalako antzezlan bat teatro-testu batean jasotzea. Dejabu panpin laborategiaren sortze prozesuak talde lanean egiten diren heinean, asko dira obraren idazketaren parte izan arren hitzez adierazi ezin diren isiluneak, mugimenduak, emozioak, objektuak, konplizitateak. Horregatik, liburu honek beste era bateko teatro-idazketa du aldarri, hitzekin batera eta aldi berean hitzetatik harago ematen dena, pertsonaiek aireatzen dituzten berbak ez ezik esan gabe geratu diren gauzak jasotzeko moduan egina. Oholtza gaineko hitzekin batera, «dramaturgia oharrak» izeneko atala sortu dute egileek: bertan topatuko ditu irakurleak Dejabukoek obraren prozesuan jasotako erreferentziak, bizipenak, aipuak, collageak, teatroa egiteko moduari buruzko gogoetak eta aitortenak... Guztia, oholtza gaineko *Arrastoak* hartan bezala, paperaren gainekoa ere memoriaz beteriko bizipena izan dadin.

“Antzerki honen indarra narrazio teatralaren kontrolean dago. Eta, beraz, orain honen publikatzeko lehen arrazoia. Ezen nola ari dira ororen buru? Tramankulu oso guti baliatuz, zaborte-gian bildu burdin kutxa arrunt bat (bizi izan den traste bat), kubo baten sei alderdietara etengabe makurrarazia, objektuen funtzioa desbideratuz, etxeko etxeko erran dezagun. Aldi berean, gure literatura zahar hoberenean bezala, epikoa eta drama abilki tartekatuz, gure soa argi doituz, sinpleki gidatuz eta lerraketa sotil batek eskutik eramaten gaituelarik irudi oparo batean urtzera.” (Antton Luku).

## Dejabu panpin laborategia

DEJABU PANPIN LABORATEGIA jestu-antzerkia eta txotxongiloak uztartzen dituen euskal konpainia da.

Ainara Gurrutzagak eta Urko Redondok 2001ean sortu zutene-tik bilakaera estetiko nabarmena izan du taldeak. Eszenaratze mini-malista, irudi eta mugimendu zainduak eta gure historia hurbilean oinarritutako narratibak dira euren lanaren ezaugarriak. Euren errealitatea poetikoki azaltzen duen antzerkia da. Umorea eta tra-gediaren arteko muga delikatuak mugitzen dira beti eta memoria kolektiboari erreferentzia egiten diote maiz.

Kritika eta ikusleen harrera beroa jaso dituzte euren lanek azken urteotan. Sari ugari eskuratu ere bai: *Gizona ez da txoria* (2009) lan-ak Pragako World Puppet Festivalen zuzendaritza onenaren saria jaso zuen, Bilboko ACT jaialdian ikuskizun onenarena eta Serbiako Subotica Festivalen antzezle onenarena. *Errautsak* (2010), *Gure bide galduak* (2011) eta *Arrastoak* (2015) antzezlanek Donostia Antzerki Saria eskuratu dituzte.

Eskuarteetan duzun *Arrastoak* lanaz gain, konpiniaren beste hain-bat antzezlan ere argitaratu dira: *Errautsak* eta *Gure bide galduak* Artezblai argitaletxean, eta *Habiak* nobela grafikoa Txalaparta ar-gitaletxean. Azken lan honek 2015ean Euskadi Literatura Saria jaso zuen Ilustrazio arloan.